

# OLATU TALKA!!! TALKA A!!!

## OLATU TALKA JAIALDIA LEGATU BIHURTU DA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA IREKI DUGU

Olatu Talka jaialdia lehenengoz 2010. urtean egin zen, Donostia / San Sebastián 2016 egitasmoa oraindik hautagaitza fasean zegoenean. Orduetik, Europako Kultur Hiriburutza izan dugun urte honetara arteko ibilbidea elkarrekin egin dute Olatu Talkak eta DSS2016EUK.

Dagoeneko, Olatu Talka jaialdia, Hiriburutza eta "Elkarbizitzarako Kultura"-n oinarrituriko proiektuaren DNAren parte da. Hori dela eta, hiriburutzaren aurreko urteetan, DSS2016ren misio, ikuspegi eta baloreen transmisiorako eta ikustarazteko tresna nagusia izan da. Honenbestez, Olatu Talkak, **herritarrek eredu berriaren protagonista aktibo eta konprometitu izan daitezten, inspiratu, trebatu eta ahalduntzearen misioa partekatu du, urtez urte.**

Zazpi jaialdi ondoren, herritarrek Olatu Talkarekin duten konpromisoak, inplikazioak eta izaera aktiboak 2.000 eragileren mobilizazioan du isla. Horien energiari esker, urtero, hirian, 200 jarduera inguruz gozatzeko aukera izaten dute 30.000 bat ikus-entzulek.

Urtez urte, gainera, jaialdiak helburu berriak finkatzen ditu eta herritarren energia bideratuz erronka kolektibo berriei heltzen die. Horrela, behin jaialdiaren deszentralizazio helburua lortuta, aurrera pauso bat eman eta, ondorengo jaialdian, erabilera gutxiko lekuei bestelako kutsua ematea izan du xede. Eremu publikoaren erabilera intentsiboago bat sustatzetik, hirigintza arazoaren inguruko hausnarketa eta, kasu batzuetan, interbentziorako partaidetza prozesuak martxan jartzera. Alderdi ludikoa alde batera utzi gabe, Olatu Talka egitasmo bizi eta aldakorra da, azken finean, gizarte gero eta aktiboago eta ahaldunduagoa izanik, **sormena, irekitasuna, aniztasuna, oren ongia, ardura eta erantzukizuna, begirunea eta enpatiatik** abiatutako

proiektua baita. Jaialdiaren bitartez garatzen diren proposamenak hiritarren grina, kezka eta helburuen isla zuzena dira, hizkuntzaren, naturaren edo ondarearen babesetik, bizitza oso eta zoriontsuago baterako bizi-eritmo eta abiaduren kudeaketan diharduten korrante filosofikoak lantzerako doazen gaiak jorratuz.

Olatu Talkan azpimarratu beharreko beste ezaugarri bat da, gauzak **beste modu batean, formatu eta leku berrietan** egiteko **sorkuntzarako eta berrikuntzarako** plataforma izaten jarraitzea. Horrela, jaialdia hainbat ekimenen berrikuntzarako "mintegi" bizia da: Musika Parkean, Ziklobia, Garbibai, Sukaldanitzak, Basoka, Rooftop Zinema, Urbanizentzia edo Kontxa Gaumarket. Finean, jaialdi eta ekimen kultural berrientzako haztegi eta proba laborategi bat.

Olatu Talka, tresna ezin hobea bilakatu da ehundura soziala sortzeko, oinarriko kulturaren jarduerak bultzatzeko eta ikustarazteko, eta azkenik, kulturaren irudia gure hiriarren ikur gisa are gehiago indartzeko. Horregatik, Donostia Kulturak Olatu Talkaren zilegitasunean sinesten du eta haren jarraipenaren aldeko apustua egin du, Hiriburutza urteaz harago, DSS2016EUren legatu gisa. **Gizarte parte-hartzaileago bat sustatzea** da xedea, eta halaber, **herriarren parte-hartzea aktiboagoa, arduratsuagoa eta sortzaileagoa** izatea.

## DATU PRAKTIKOAK

> Aurreko bi urteetako trantsizioaren ondoren, lehenengo aldiz antolakuntzaren ardura Donostia Kulturak bakarrik hartuko du.

> Gaurtik aurrera eta 2016ko urtarrilaren 31a arte, artista, kolektibo, elkarte eta hiritarrek maiatzaren 19, 20 eta 21ean izango den zortzigarren Olatu Talka jaialdirako jarduera proposamenak bidaltzeko aukera izango dute. Proposamenak [www.olatutalka.eus](http://www.olatutalka.eus) webgunearen bidez aurkez daitezke.

> Proposamenetan gai desberdinak jorratu daitezke. Jarduera artistiko guztiez gain, gizarte gaiak, zientzia dibulgazioa, ingurumena, hirigintza, diseinua... proposamenaren natura edozein dela ere koordinazio taldeak horren egingarritasuna baloratuko du azkenean aurrera eramango diren horiek aukeratzeko.

> Aurrerago beste deialdi batzuk egingo ditugu egitasmo konkretu edo plataforma desberdinetan eragile bezala izen emateko, hala nola, merkatuak, musika taldeen kontzertu sortak.

## KONTAKTUA

Telefonoa: 943481666 / 647150070

E-posta: [olatutalka@donostia.eus](mailto:olatutalka@donostia.eus)

Webgunea: [www.olatutalka.eus](http://www.olatutalka.eus)